



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

BPG-k 4 milioi euro aurreztu ditu Bilboko Metroaren 2. lineako azken zatian, Santurtzi eta Kabiezes artean

Bilbon, 2013ko maiatzaren 24an

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP-CTB) 4 milioi euro baino gehiago aurreztu ditu Santurtzi eta Kabiezes auzoaren arteko lur azpiko trenbidearen 2. linean burutzen ari diran lanetan, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Bizkaiko Batzar Nagusietan burutu dan batzordean gaur aurreratu dauenez.

Holan, zati horretako superegiturako lanak egiteko 2011., 2012., eta 2013. urteetarako egoan 13.697.649 euroko aurrekontua 9.623.859 euroraino murriztea lortu dau BPG-CTB-k. Azken kopuru hori izango da azkenean proiektua egingo daben enpresen esleipenaren arabera ordainduko dana. Kopuru horreek Garamendik emon ditu, Bilboko metroa zabaltzeko lanetan BPG-CTB-ren ardura diran kontratuen aurrezpenari buruz Jesús Isasik, Bizkaiko Talde Popularrak Bizkaiko Batzarretan dauen ordezkari bozeroaleak, egin dauen galderari emondako erantzunean.

Bere parte hartzean, kontratazinoan lortutako aurrezpenaren zati bat lur azpiko trenaren erabiltzaileen “boltsikoan” nabaritzea eskatu dau, garraio tituluen prezioak merketuz. Halan da be, Foru Diputatuak batzordekide popularrari gogoratu deutso “Alderdi Popularrak onartutako Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko Legeak adierazoten dauenez, erakunde guztiek, lortutako aurrezpena zorra murriztera eta diruzaintzako soberakina handitzera bideratu behar dabela”, eta holan egingo dala BPG-CTB-ren kasuan be.

Bilduk Batzordean dauen bozeroaleak, Aitor Torrek, eztabaida horretaz baliatuz, Jesús Isasiri gogoratu deutso koalizino abertzaleak, 2013. urteko Bilboko Metroaren tarifak izoztea iradoki ebala igaz, eta Batzar Nagusietan ordezkariak dituen gainerako talde guztiak proposamen horren kontra agertu zirala, “PP be bai”.

METROAREN ORDUTEGIAK ASTE SANTUAN

Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak, Bizkaiko Talde Popularrak, alde batetik, eta Bildu eta Socialistas Vascos taldeek, bestetik, aurkeztu dituen Arauz Besteko Proposamen bi eztabaidatu eta atzera bota ditu.

Batzar Nagusiek, Euzko Abertzaleak eta Bildu taldeen 9 ordezkarien kontrako botoakaz eta Socialistas Vascos taldearen ordezkari bien abstentzinoagaz, atzera bota dabe PP taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, Aste Santuko jaiegunetan Bilboko Metroak zerbitzu zabalagoa eskini daian. Beste errazonamendu batzuen artean, Jesús



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Isasik, “joan dan Aste Santuan Bilbo bisitau dauen turista kopuruak gora egin dauela” esan dau.

Bilduk kontrako botoa emon dau, PP-k ez dauelako onartu zerbitzu hori zabaltzea erabagi aurretik bideragarritasun txostena egitera bideratutako zuzenketa-eskea. EAJ-PNV taldearen eretziz, “azterlan hori ez da beharrezkoa, izan be, Bilboko Metroak kaleratu dituan Aste Santuko bidaiari kopuruari buruzko datuak kontuan izanda, egun horreetako eskaerea, urteko gainerako jaiegunetakoa baino ehuneko 30 txikiagoa izan da. Hori dala eta, ez dago inongo errazoirik, ez ekonomiaren ezta gizartearen ikuspegitik be, trenbide metropolitarrak eskintzen dauen zerbitzua zabaltzeko”.

AUTOBUSA SAN JUAN AUZORA (SANTURTZI)

Batzordeak atzera bota dau, baita be, Bildu eta Socialistas Vascos taldeek aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, Bizkaiko Foru Aldundiari, Bizkaibus programaren bitartez, ordu erditik behin, Santurtziko San Juan auzoa eta herriaren erdialdea lotuko dituan bidaiarien garraio zerbitzua martxan jarri daian eskatzeko. “Eskaera horrek, herriko Udalean ordezkariak daukien talde guztien aldeko onespina jaso eban, EAJ-PNV-ko alkatea buru zala”.

“Auzo horretako biztanleek, ordubetez behingo maiztasunagaz, San Juan, Santurtzi erdialdeagaz gain, Bilborekin, Max Centerrekin eta Gurutzetako eta Basurtuko ospitaleakaz” lotzen dauen zerbitzua daukiela” gogoratu eta gero, Itziar Garamendik adierazo dau “zerbitzu hori ez dala Foru Aldundiaren edo Bizkaibusen eskumenen barruan sartzen, udal izaera dauen linea dalako, eta, izatekotan, herriko udalak finantzatu beharko leukela, gaur egun Bizkaiko beste udalerrri batzuetan gertatzen dan moduan, Bakion, Etxebarrin, Diman, Bermeon edo Erandion, adibidez”. Nerea Ahedok, EAJ-PNV taldeak Batzordean dauen bozeroaleak, Foru Diputatuaren eretxia berretsi dau, eta eskatutako neurriak “antzeko biztanleriak eta mobiduteko arazoak dituen Bizkaiko beste udalerrri batzuk baztertuko leukezala” adierazo dau.

Arauz Besteko Proposamenaren defendatzaileek, Isaac Fernándezek (Socialistas Vascos) eta Aitor Torrek (Bildu), gizartearen aldetik dagoan eskaerea aitatu dabe, Santurtziko Udalak aho batez onartutakoa, eta baita San Juan auzoaren ezaugarri soziologiko eta orografiko bereziak be. Gogoratu dabe bertan ez dagoala “ikastetxe, anbulatorio edo supermerkatu bakar bat be”. Azkenean, proposamena baztertu egin da, EAJ-PNV taldearen kontrako sei botoakaz eta PP-ko batzordekide bien abstentzinoagaz.

BIRIBILUNEA BI-625 ERREPIDEAN, ARRIGORRIAGAN

Beste alde batetik, Batzordeko Talde guztiek Bizkaiko Foru Aldundiak, Herri Lan eta Garraioetako Sailaren bitartez, Sustapen Ministerioagaz eta Autopista Vasco-Aragonesa (AVASA) enpresagaz sinatu dauen Alkarlanerako Hitzarmena berretsi dabe, Arrigorriagako udalerrian dagoan AP-68/BI-625 lotune barrian biribilune barriaren



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eraikuntza sustatzeko. Itziar Garamendiren berbetan, “beharrezko lana da, trafikoa antolatzeko, eta holan, bideko segurtasuna hobetzeko eta inguru horretan gertatzen diran ahalmen arazoak konpontzeko”. Proiektu horren aurrekontua 2 milioi eurokoa da. Bildu taldearen bozeroaleak, aukera horretaz baliatuz, 2026. urtea baino lehen AP-68 autopistaren eskumena Aldundiaren esku geratzea eskatu dau. Urte horretan amaituko da errepide azpiegitura horren emakidea, Foru Aldundiaren esku ez dagoan lurralde historikoko bakarra.

Amaitzeko, Jesús Isasik (PP), Bilbao-Card turismo txartela martxan jarrean dauen atzerapena kritikatu dau. Txartel horregaz aukera egongo da, gitxiago ordainduta, uri barruko garraio publikoa erabilteko eta museoetan, dendetan, jatetxeetan, aisiako establezimenduetan, ikuskizunetan eta bestelako zerbitzuetan beherapen garrantzitsuak lortzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

CTB ahorra 4 millones de euros en las obras del último tramo de la Línea 2 de Metro Bilbao entre Santurtzi y Kabiezes

En Bilbao, a 24 de mayo de 2013

El Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) ha ahorrado más de 4 millones de euros en las obras que se están llevando a cabo en el último tramo de la Línea 2 del suburbano entre Santurtzi y el barrio de Kabiezes, según ha desvelado hoy la Diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, en la Comisión celebrada hoy en las Juntas Generales de Bizkaia.

Concretamente, el CTB ha logrado rebajar los 13.697.649 euros en los que estaban presupuestados diferentes trabajos de Superestructura de este tramo, durante los años 2011, 2012 y el presente 2013, hasta los 9.623.859 euros, en los que han sido finalmente adjudicados a las empresas responsables del proyecto. Estas cifras han sido facilitadas por Garamendi en su respuesta al portavoz suplente del Grupo Popular Vizcaino en la Cámara vizcaína, Jesús Isasi, sobre el ahorro en los contratos responsabilidad del CTB para la ampliación de Metro Bilbao.

En su intervención, Isasi ha solicitado que parte del ahorro logrado en la contratación repercuta “en el bolsillo” de los usuarios del suburbano mediante una rebaja en el precio de los títulos de transporte. Sin embargo, la Diputada foral ha recordado al apoderado popular que “la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, aprobada por el Partido Popular, obliga a todas las instituciones a destinar el ahorro logrado en la disminución de la deuda y a incrementar el remanente de tesorería”, y que así se hará en el caso del CTB.

El portavoz de Bildu en la Comisión, Aitor Torre, ha aprovechado el debate para recordar a Jesús Isasi que la coalición abertzale propuso el pasado año la congelación de tarifas de Metro Bilbao en 2013, a lo cual se opusieron el resto de grupos con representación en Juntas Generales, “incluido el PP”.

HORARIOS DE METRO EN SEMANA SANTA

La Comisión de Obras Públicas y Transporte ha debatido también, y rechazado, sendas Proposiciones no de Norma presentadas por el Grupo Popular Vizcaíno, por un lado, y por el Grupo Bildu y Socialistas Vascos, por otro.

Las Juntas Generales han rechazado, con los votos en contra de los 9 representantes del Grupo Nacionalistas Vascos y Bildu y la abstención de los dos representantes del Grupo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Socialistas Vascos, una Proposición no de Norma del PP para que Metro Bilbao ampliase su servicio durante los días festivos de Semana Santa. Entre otros argumentos, Jesús Isasi ha apoyado esta petición “en el aumento de turistas que han visitado Bilbao durante la pasada Semana Santa”.

El voto contrario de Bildu ha estado motivado por el rechazo del PP a incluir una enmienda encaminada a la elaboración de un informe previo de viabilidad antes de decidir la ampliación de dicho servicio. Para el PNV, “dicho estudio no es necesario ya que, según las cifras de viajeros durante Semana Santa, facilitadas por Metro Bilbao, la demanda cae durante esos días un 30 por ciento en comparación con el resto de festivos del año, por lo que no existe justificación alguna, ni económica ni social, para ampliar el servicio de transporte metropolitano”.

AUTOBÚS AL BARRIO DE SAN JUAN (SANTURTZI)

La Comisión ha rechazado también una Proposición No de Norma presentada de forma conjunta por los grupos junteros de Bildu y Socialistas Vascos para solicitar que la Diputación Foral de Bizkaia, a través del programa Bizkaibus, incluyera un servicio de transporte de viajeros que comunique, cada media hora, a la población del barrio de San Juan de Santurtzi con el centro urbano, “una demanda apoyada en pleno municipal por unanimidad de todos los grupos con representación en el Ayuntamiento de la ciudad, con su alcalde del PNV a la cabeza”.

Tras señalar que “las vecinas y vecinos del citado barrio ya disfrutan de un servicio de Bizkaibus que, con una frecuencia de una hora, comunica San Juan, no solo con el centro urbano, sino con Bilbao, Max Center y los hospitales de Cruces y Basurto”, Itziar Garamendi ha asegurado que “dicho servicio no entra dentro de las competencias de la Diputación Foral ni de Bizkaibus al tratarse de una línea de carácter municipal, que debiera ser financiada, en su caso, por el ayuntamiento de la localidad, tal y como sucede en otros muchos municipios de Bizkaia como Bakio, Etxebarri, Dima, Bermeo o Erandio”. La portavoz del PNV en la Comisión, Nerea Ahedo, ha respaldado la opinión de la Diputada al asegurar que la medida solicitada “sería discriminatoria con otros municipios de Bizkaia con poblaciones y problemáticas de movilidad similares”.

Los defensores de la Proposición No de Norma, Isaac Fernández (Socialistas Vascos) y Aitor Torre (Bildu), han apelado a la demanda social, apoyada por unanimidad por el pleno del Ayuntamiento de Santurtzi, y a las especiales características sociológicas y orográficas del barrio de San Juan, “donde no existen ni un centro escolar, ni un ambulatorio, ni un supermercado”. Finalmente, la iniciativa ha sido rechazada con los seis votos en contra del PNV y la abstención de los dos apoderados del PP.

ROTONDA EN LA BI-625, EN ARRIGORRIAGA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otro lado, todos los Grupos de la Comisión han ratificado el Convenio de colaboración suscrito por la Diputación Foral de Bizkaia, a través de su Departamento de Obras Públicas y Transportes, con el Ministerio de Fomento y la empresa Autopista Vasco-Aragonesa (AVASA), para promover de forma conjunta la construcción de una nueva rotonda en la nueva conexión AP-68/BI-625, en el término municipal de Arrigoriaga. En opinión de Itziar Garamendi, “se trata de una obra necesaria para reordenar el tráfico y conseguir así mejorar la seguridad vial y resolver los problemas de capacidad que se registran en la zona”. Este proyecto está presupuestado en 2 millones de euros. El portavoz de Bildu ha aprovechado la ocasión para demandar la competencia foral sobre la AP-68 antes del año 2026, fecha en la que finaliza la concesión de esta infraestructura viaria, la única del territorio histórico que no es responsabilidad de la Diputación Foral.

Finalmente, Jesús Isasi (PP) ha criticado el retraso en la puesta en marcha de la tarjeta turística Bilbao-Card, que permitirá, por un precio reducido, utilizar el transporte público urbano y aprovecharse de importantes descuentos en museos, comercios, restaurantes, establecimientos de ocio, espectáculos y otros servicios.